


**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
GIZARTE KONTSEILUAREN PLAN
ESTRATEGIKOA
2007-2010**

Bilbon, 2006ko abenduaren 18an

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN EREDUA



Gizarte Kontseiluaren helburua

Kontseiluaren eta unibertsitatearen arteko lotura

Unibertsitatearen ekintzak eta planak gauzatzen laguntzea.

Unibertsitatearentzako finantzaketa sustatzea.

Gizarte Kontseilura eramaten diren gaiak izapidetzen laguntzea.

Unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura

Bitarteko moduan jardutea, gizarteari unibertsitatearen gaitasunen eta beharrianen berri emanez.

Kontseiluaren eta gizartearen arteko harremana

Gizartea ordezkatzeko duten erakundeekin harremanetan egotea, gizartearen eta unibertsitatearen artean informazioa bildu eta emateko, uhal eragile baten antzera.

Gizarte Kontseiluaren balioak

- Unibertsitatearekin eta unibertsitatearentzat akordioak egitea eta lan egitea.
- Unibertsitatearen kudeaketa hobetzeko jarrera positiboa.
- Kontseiluak eta unibertsitateko gobernu-taldeak elkarrekiko konfiantza izatea.
- Unibertsitateko errektoreari laguntzea.
- Unibertsitatearen autonomia errespetatzen duen bata bestearekiko leialtasuna izatea.

Ingurunea

- **Kanpoan**
 - **Mehatxuak**
 - ❖ Unibertsitateak beti izan du Gizarte Kontseiluarekiko mesfidantza (kontrola, unibertsitatearen autonomia zapaltzea).
- **Barruan**
 - **Ahultasunak**
 - ❖ Gizarte Kontseiluko kideek ez dute denborarik.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Erakundean eragina duten kanpoko eta barruko inguruabarrak kontuan hartuta, bere helburua betetzeko erabakigarriak diren epe luzerako ekintzak dira.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- Unibertsitatearen kudeaketan laguntzea
- Gizartetik unibertsitaterako ahotsa eta aldaketarako eragilea izatea
- Gizarte Kontseilua eta unibertsitatea hurreratzea
- Unibertsitatetik gizarterako baliabideen ikuspena hobetzea eta horiek zabaltzea
- Gizarte Kontseiluaren kudeaketa finkatzea

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- Unibertsitatearen kudeaketan laguntzea
 - Baliabideak identifikatuz.
 - Finantzaketan lagunduz.
 - Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak bideratuz eta sustatuz.
 - Gizarte testuingurua zehaztuz, aldi bateko eta etorkizuneko aukerekin.
- Gizartetik unibertsitaterako ahotsa eta aldaketarako eragilea izatea
 - Gizarteak, eskatzen diren lehiakortasunari, berrikuntzari, ikerketari, gaitasunei eta ezagutzei dagokienez dituen beharrianak identifikatzea.
 - Oro har bikaintasuna bultzatzea eta unibertsitatearen zerbitzuak eta produktuak bereiztea (prestakuntza, ikerketa eta kudeaketa).

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- **Gizarte Kontseilua eta unibertsitatea hurreratzea**
 - Gizarte Kontseiluaren eta unibertsitatearen arteko harremanak, elkar ulertzea eta lankidetzaz sustatu, bideratu eta bultzatuz.
 - Unibertsitatearen eta herri administrazioen arteko harremanak ahalbidetuz.
 - Gizarteak bere unibertsitate publikoarekin identifikatuz.
- **Unibertsitateak gizarterako baliabideen ikuspena hobetzea eta horiek zabaltzea**
 - Gizarteak unibertsitatearen baliabideak erabil ditzan ahalbidetuz.
 - Unibertsitateak dituen balioen berri emanaz gizarteari.
 - Unibertsitatearen irudia sustatuz.
 - Gizarteak eskura ditzakeen produktuak eta zerbitzuak deskribatuz.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- **Gizarte Kontseiluaren kudeaketa finkatzea**
 - Barne-komunikazioa hobetuz.
 - Plan estrategikoa ezartzen dela bermatuz.

TAKTIKAK

Eragiketa-ekintza jakin batzuk dira, erakundeak gauzatu behar dituen ardatz estrategikoetan ezarritako helburuak bete nahi baditu.

Kontseilukideek 33 taktika identifikatu dituzte; gero 14ra gutxitu ziren eta azkenean 2007ko Eragiketa Planean 9 finkatu ziren. Gainerako taktikak hurrengo urteetan burutuko dira.

2007KO ERAGIKETA PLANA LANTZEA

Helburua:

Taktika kopurua murriztea, benetan gauza daitekeen lanerako plana egin ahal izateko.

Lehentasunak ezartzeko irizpidea:

- Kontseilukideen ahalmena eta Gizarte Kontseiluaren baliabideak
- Emaizak lortzeko denbora
- Zailtasuna
- Testuinguru politikoa

2007KO ERAGIKETA PLANA

- Unibertsitateko enplegu-eskariari buruzko behatokia diseinatzea, abiaraztea eta ustiatzea.
- Gizarteak unibertsitateko ikasleen ezagutzei, trebetasunei eta gaitasunei buruz zer eskatzen duen ikertzea.
- Gizarte Kontseiluaren eta unibertsitatearen artean elkarrizketa sortzea, komunikazioa errazagoa izan dadin.
- Aldizka bilerak antolatzea unibertsitateko eta Gizarte Kontseiluko ordezkarien artean.
- Gizarte Kontseiluaren barne-komunikazioa sendotzea.
- Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren gaineko jarraipena bideratzea.
- Unibertsitatearen laguntzarekin ikerketarako produktu eta zerbitzuen katalogo bat egitea. Katalogoan hauek sartuko dira: produktuak eta zerbitzuak, adituen gida eta egindako lanak.
- Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea unibertsitatearen jardueren gaineko estatistika-urtekaria egiteko, eta gero argitaratzea.
- Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea foro publikoa sortzeko.

Gizartetik unibertsitaterako ahotsa eta aldaketarako eragilea izatea

1. Unibertsitateko enplegu-eskariari buruzko behatokia diseinatzea, abiaraztea eta ustiatzea.

Proiektuak enplegatzaileen eta ikasleen partaidetza sustatuko du. Horretarako, izan ere, Gizarte Kontseiluak komunitate birtuala gauzatzea kontuan hartuko du.

2. Gizarteak unibertsitateko ikasleen ezagutzei, trebetasunei eta gaitasunei buruz zer eskatzen duen ikertzea.

Ikerketa horren bidez, graduako, graduondoko eta etengabeko trebakuntzako tituluen edukiak egokitzeko aholkuak atera ahal izango dira.

Gizarte Kontseilua eta unibertsitatea hurreratzea

1. Gizarte Kontseiluaren eta unibertsitatearen artean elkarrizketa sortzea, komunikazioa errazagoa izan dadin.

Errektoreak bilera sistematikoak egingo ditu Gizarteko Kontseiluko buruarekin eta, beharrezkoa denean, Kontseiluko eta unibertsitateko beste kide batzuekin.

2. Aldizka bilerak antolatzea unibertsitateko eta Gizarte Kontseiluko ordezkarien artean.

Gizarte Kontseiluaren kudeaketa finkatzea

1. Gizarte Kontseiluaren barne-komunikazioa sendotzea.

Beharrizanak identifikatuz eta komunikazio-prozesuak landuz.

Kontseilukideek euren lana betetze aldera behar duten informazio mota, irismena eta hori lortzeko modua aztertuz.

2. Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren gaineko jarraipena bideratzea.

Jarraipenerako erantzukizuna emanez.

Egin diren ekintzak hiruhilero balioztatuz eta osoko bilkurari emaitzen berri emanez.

Unibertsitatetik gizarterako baliabideen ikuspena hobetzea eta horiek zabaltzea

1. Unibertsitatearen laguntzarekin ikerketarako produktu eta zerbitzuen katalogo bat egitea. Katalogoan hauek sartuko dira: produktuak eta zerbitzuak, adituen gida eta egindako lanak.

Ezagutzak lortu nahi dituztenentzako marketin plana egiteko oinarri moduan erabiliko da katalogoa. Ahalegin horri esker, gerora, unibertsitaterako eta gizarterako funtzio eta ekonomia aldetik onuragarriagoa izango den tresna juridikoa sortu ahal izango da.

Unibertsitateak gizarterako baliabideen ikuspena hobetzea eta horiek zabaltzea

2. Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea unibertsitatearen jardueren gaineko estatistika-urtekaria egiteko, eta gero argitaratzea.

Urtekarian berariaz jaso behar da unibertsitateak gizartearen esku utz ditzakeen baliabide fisikoen inbentarioa.

3. Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea foro publikoa sortzeko.

Gizarte Kontseiluak mahai-inguruen programa bat eta komunikabideen programak prestatuko ditu gizartearen balioak hedatzeko den foro hori garatze aldera.

HELBURUA ONDO BETEKO DELA BERMATZEKO ALDERDI KRITIKOAK

- Gizarteko Kontseiluko buruaren eta unibertsitateko errektorearen laguntza eta konpromisoa.
- Kontseilukideen eta unibertsitateko kargu garrantzitsuenen laguntza eta konpromisoa.
- Taktika bakoitzerako ekintza-plana. Baliabideak eta adierazleak.
- Taktiken ezarpenaren aurrerapenaren aldizkako berrikuspena.
- 2007ko ekainean 2008ko jarduera plana lantzen hasia.